

**NORA**

Lara Izagirre-ren film bat

Irakasleen txostena

**KOLEGIOA ZINEMARA**

**Euskaraz**



## Eskerrak

Cinévasion elkarteak eskertzen ditu esperimentazioan parte hartu duten partaide instituzional guztiak eta bereziki: Kultura Gaietarako Akitania Berria Eskualdeko Zuzendaritza, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko zerbitzu kulturala, Sandra Mourad (Délégation Académique à l'Action Culturelle), Marie-Sophie Decout (CNC), EEPko zerbitzu teknikoak, Santiago Hidalgo (Passeurs d'Images elkarte), Xavier Grizon (Cinéma 93), Johaïne Etchebest (EKE), Frank Suarez (EKE), Elise Dilet (Ikas), Thierry Méranger, Gastibeltza Filmak banatzailea, Gariza Films ekoiztetxea, Jokin Etcheverria (La Fidèle Production), Thierry Méranger, Txomin Urriza Luro, Uxue Arbelbide Lete.

Milesker handi bat Mathilde Trichet zine erakasleari berrirakurketa eta kontseilu guztientzat.



## Aitzinsolasa

Txosten pedagogiko hau apailatu da euskarazko laugarren filma aurkezteko Kolegioa Zinemara dispositibora. Euskarazko proposamen berri honetan programazio aukera bat baino gehiago agertzen da, eta sar hitz gisa aurkezten dugu laburki.

- Zergatik proposatu euskarazko laugarren film bat, irudiaren aldeko heziketa dispositiboaren kariatara?

Tokiko zinema-ekoizpenaren parte bat aitzinera emateaz gain, gure lurraldeko kultura eta hizkuntza berezitasuna baloratu nahi dira, irakaskuntza eskaintza mota desberdinei egokituz.

Horretarako, Cinévasion elkarteak, Departamenduak, Hezkuntza Ministerioak eta ekimen horren parte diren partaide guziek apustua egin dute euskal sorkuntza zinematografikoa ikasleen arte eta kultura heziketa xede duen dispositiboan sartzeko.

- Zer dakar horrek? Eta espero den zer emaitza lortzeko?

Arreta berezia jarri da irudiaren aldeko heziketa euskaraz egina izan dadin, irakasleei parada emateko ekimen hori osoki ikasleen hizkuntza-ikaskuntzan sartzeko. Halaber, esperimentazio hori euskaldunak ez direnentzat ere arrunt ulergarri izanen da frantsesezko azpitoluak izanen baitira eta euskarri pedagogikoak apailatuko baitira bi hizkuntzetan, tokiko sorkuntza ezagutarazteko, baloratzeko eta helgarri egiteko.

Horrela, irakasleak parada ukanen du ikasleen jabetze lexikalak eta analisi metodoak probatzeko. Argumentatzearen praktika sustatzen ahaldu du zinema gelan edo ikasgelan, gaitasun mota desberdinak ebaluatzeko ikasleen arabera: sintesia, ulermena, analisia, ahozko edota idatzizko adierazpena, urruntasun kritikoa...

Ikasleek ikerketa edo gogoeta bide orokorra josteko parada ukanen dute aurkeztua zaien filmaren eta hurbileko hizkuntza eta kultura ingurumenaren artean.

Azkenik, gure lurraldeko kulturaren eta hizkuntzen baloratzeaz gain, esperimentazioak, proposatzen dituen jarduera gehigarrien bidez, parada ematen die ikasleei eta irakasleari zeharkako ikusmolde berritzailearekin lan egiteko, zinemako lanbideetan eta adarretan trebatuz oraino gehiago. Ikasle bakoitzaren Arte eta Kultura Heziketa Ibilbidearen elikatzeko pentsatua da.

- *Nora*, mugarik gabeko road-movie-a, kolegioko 4. eta 3.eko ikasleentzat

Txosten pedagogiko honek, irakasleei *Nora* filma lantzeko bide bat baino gehiago eskaintzea du xede. *Nora*, 30 urteko neska gazteak Euskal Herriko kostan zehar ezohiko bidai bat burutuko du, berriki zendu den « aitita »-ren errautsak Ziburuko amatsuren hilobi ondora ekartzeko xedez.

Irakasleak road-movie genero zinematografikoari buruzko baliabide franko atzean ditu : generoaren definizioa, arauak eta film nagusiak ezagutzeko parada izanen du. Lara Izagirreren filman, bidaiaren bidez gauzatzen den askatasun bilaketa emazte baten begiradatik filmatua da. Aukera ona izan da euskal zinemako emazte zinegileen historia laburra berriz gogoratzeko. Azkenik, idazketa tailer proposamenak agertzen dira, edozein filmen produkzioarako beharrezkoak direnak : xede oharra eta sinopsia bestek beste. Ariketa hauekin, agian, beraiek asmatu istorioak kontatzeko gogo piztuko zaie ikasleei...

|                                                                                                                                                                                                                                           |           |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>Fitxa teknikoa</b>                                                                                                                                                                                                                     | <b>3</b>  |
| (Arteko orria) <b>Idazketa tailerra</b><br>(Arteko orria) <b>Analisia tailerra: Film-narrazioa</b>                                                                                                                                        | <b>4</b>  |
| <b>Gako-hitzak / Gaiak</b><br><b>Kolegioko programan diren nozioak</b>                                                                                                                                                                    | <b>4</b>  |
| <b>Lara Izagirre, emazteei eta munduari buruzko emazte-begirada bat</b>                                                                                                                                                                   | <b>5</b>  |
| <b>Q Emazte zuzendariak euskal zineman</b> <ul style="list-style-type: none"><li>Mirentxu Loyarte, aitzindaria</li><li>Euskal zinemagintzaren garapena</li><li>1990eko hamarkadatik gaur arte</li></ul>                                   | <b>6</b>  |
| <b>Xede oharra: Familia, heriotza eta bidaia</b>                                                                                                                                                                                          | <b>8</b>  |
| (Arteko orria) <b>Xede oharra / Idazketa tailerra</b>                                                                                                                                                                                     | <b>9</b>  |
| <b>Ane Pikaza: Artista osoa</b> <ul style="list-style-type: none"><li>Emazteen begirada eta askatasunaren bilaketa</li><li>Mugarik gabeko espazioa</li></ul>                                                                              | <b>10</b> |
| <b>Sekuentzien mozketa</b>                                                                                                                                                                                                                | <b>12</b> |
| <b>Musika iparrorratz gisa</b>                                                                                                                                                                                                            | <b>14</b> |
| <b>Noraren tangoa eta Izaroren kontzertua</b>                                                                                                                                                                                             | <b>15</b> |
| (Arteko orria) <b>Nora kantua</b>                                                                                                                                                                                                         | <b>16</b> |
| <b>Narrazioa: bidaia inizatikoa eta barnekoa</b> <ul style="list-style-type: none"><li>Road movie-a: genero zinematografiko baten definizioa eta honen sorrerari buruzko xehetasunak</li><li>Nora filma: “anti-road movie” bat?</li></ul> | <b>17</b> |
| (Arteko orria) <b>Road movie-a</b>                                                                                                                                                                                                        | <b>19</b> |
| <b>Sekuentzia baten analisisa: Paddle saioa</b> <ul style="list-style-type: none"><li>Lehen entsegu dorpea</li><li>Paddle arialdi bukaera arinagoa</li><li>Indarberriturik</li></ul>                                                      | <b>20</b> |
| <b>Parez-pare “Aitita” Nicolás eta “Amama” Juliana</b>                                                                                                                                                                                    | <b>22</b> |
| <b>Zinemaren hiztegitxoa</b>                                                                                                                                                                                                              | <b>23</b> |

Txostenaren idazlea:  
Stéphanie Hontang

Parte hartzaileak:  
Itziar Madina  
Katixa Monville  
Joana Duhalde

# Fitxa teknikoa

## ● Sinopsia

Nora hogeita hamar urte inguruko gazte langa-bea Euskal Herriko hiri ertain batean bizi da, larriki gaixorik den bere aitona Nicolás argentinarrearengandik oso hurbil. Ofizioz, Nora kazetari eta ilustratzailea da. Lekuko egunkariarentzat horoskopoa idatzi ohi du baina munduan gaindi ibiltzea eta aldizkari berezituentzat bidaien inguruko erreportaiak idaztea luke amets. Haur denborako bere laguna Meriren seme-alabak askotan zaintzen ditu.

« Aitita » Nicolás hiltzean, Norak Dyane 6 auto zahar bat jasotzen oinordetzan eta oso gidari trebea ez bada ere, Euskal Herrian gaindikiko *road-trip* batean abiatzen da... Bere buruari helburua finkatzen dio « aitita »-ren errautsak amama dagoen hilobira eramatea. Horretarako, Euskal Herria zeharkatu behar du, Ziburura heltzeko, Lapurdira. Hasieran, Merik eta haurrek laguntzen dute, poz-pozik, egunerokotasun aspergarritik ateratzen dituen autoan doazelako eta itsas bazterrean akanpatzeaz gozatzen dutelako. Baina Nora bakartasun beharrean dago. Orduan, laguna eta haren seme-alabak abandonatzea erabakitzen du eta argi zirrintan isil-isilik ihes egiten du, bere kontzientzia txarraren eta piztu nahi ez duen Dyane 6 autoaren kontra borrokatzen. Abiatu bada abiatu, Norak ez daki autoa nola gelditu. Herri-barneak saihestuz, bide txikiak aukeratzen ditu eta zidorretan bideratzen da, harik eta bidexka baten puntan autoa ezin menperatuz, pikondo batzuen azpian kokaturik gelditzen den arte, labarrean den baserri bakarti baten ondoan. Harramantzaren gainetik, Dyane 6 zaharrak ihardoki dio ezbeharrari eta Norak lasaitzeko erabiltzen du unea. Asteroko horoskopoa diktatzen du telefonoz, paisaia jabalgarriaz profitatuz. Orduan, Citroën zaharraren kasete irakurgailutik ateratzen den eta aitatxi zenak maite zuen tango-doinuaren gainean dantzatzen hasten da. Lekuaren xarmaz liluraturik, artean Meri eta aitamak etengabe telefonoz juntatzen saiatzen ari zaizkiola, Nora ibilaldian joaten da. Noizbait, laguna eta haren seme-alabak bazterrean utzi dituelako haserre ari zaion amari erantzuten dio. Momentu horretan, Norak lortzen du aldarrikatzen ororen gainetik askatasun beharretan dagoela.

Segidan, mendiaren eta itsasoaren arteko ingurune barean, zenbait abentura txiki aletzen zaizkio. Beregaintasuna goretsi bezain laster, izu-laborriak hartzen du alta ezin otzanagoa den ardi-saldo baten aurrean, aldapa batean bera baino zaharragoak diren mendizale batzuek gibelean uzten dute ahalkegarri eta paddlezale trebe batzuek urera erorarazten dute. Azkenean, asto zenbaitekin baizik ez da ongi moldatzen eta haiekin zenbait sagar partekatzen ditu. Azen ontzeko, autoa ez zaio pizten, lotsagabe batzuek marrazki likitsa margotu diote autoko aurreko atean eta Mari-Feli baserriko jabeak eskatzen dio lehen bailehen lekuak husteko.

Halere, Norak aitzina joaten laguntzen dioten ezagutza batzuk egiten ditu ere. Joseba surfeko erakaslea topatzen du eta baratzean ekarriko dion laguntzaren trukean Mari-Felirekin adosten da, honek Dyane 6a konpontzeko diru poxia emanen diola. Axota batez, autoko ateko irudi lohitsu aldutzen du txipiroi alegera batean eta bideari ekiten dio berriz. Lekeition, Izaro kantariaren kontzertura doa eta han, Josebarekin bat egiten du eta harekin iragaten du gaua. Baina Norak ez du ahanzten betebeharrak deitzen duela eta bidaia jarraitzen du Kantauri itsasoaren bazterrez-bazter, Hendaiaraino. Han, Ulysses liburutegiak eta haren liburuzaina Catherine onberak gatibatzen dute. Nora eta Catherine lagunak bilakatzen dira. Ziburun, amatxi zena ehortzia den hilerrira heltzen da Nora. Haatik, zaindariak ulertarazten dio aitatziren errautsak ezin dituela baimen administratibo berezirik eskuratu gabe utzi. Orduan, gizongai ohiaren ostatura doa eta han ohartzen da Ximunek familia osatu eta bizi berria egin duela. Bururatzean, Nora aitamen etxera itzultzen da, Meri eta seme-alabekin baketzen da eta egin berri duen bidaiaren ilustrazio-kaiera prestatzen hasten da. Hendaiara itzultzen delarik, « aitita » Nicolásen errautsak uzten ditu eta Ulysses liburu-dendan instalatzen da lanean aritzeko. Catherinek lagundurik, publikoari aurkezten dio ilustrazio-liburua.

## ● Partaideen zerrenda

NORA  
Euskal Herria  
2020 | 1 h 40

Zuzendaria  
Lara Izagirre  
Gidoia  
Lara Izagirre  
Irudia  
Gaizka Bourgeaud  
Soinua  
Jean Minondo  
Muntaketa  
Ibai Elortza  
Musika  
Paula Olaz, Pascal Gaigne  
Jatorrizko kantuak  
Izaro  
Zuzendari artistikoa  
Izaskun Urkijo  
Ekoizpena  
Gariza Films, Tandem Films, La Fidèle Production  
Banaketa  
Filmax  
Generoa  
Komedia dramatikoa, road movie-a  
Formatua  
1.33, numerikoa, kolorea  
Argitalpena  
2021eko irailaren 8a  
Aktoreak  
Ane Pikaza : Nora  
Héctor Alterio : Nicolás,  
“Aitita”, Noraren aitona  
argentinarra  
Ramón Barea : Javi,  
“aita”, Noraren aita  
Klara Badiola : Loli,  
“ama”, Noraren ama  
Naiara Carmona : Meri, Noraren adiskide  
hoberena  
Kepa Errasti : Jon,  
Noraren herriko ostatuko  
zerbitzaria  
Loli Astoreka : Mari-Feli,  
etxalde eta baratzearen  
jabea  
Iñigo Aranbarri : Joseba,  
surf irakaslea  
Peio Berterretche : Ximun, Noraren mutiko  
lagun ohia  
Itziar Ituño : gasolindegiko langilea  
Joseba Usabiaga : arrantzalea  
Lai Kruse: Amy, AEBetako  
berriemaile-argazkilaria  
Catherine Domain:  
Catherine, Ulysse liburu  
dendako arduraduna

## ● Idazketa tailerra

Film bat idazteko, finantzabideak bilatzeko eta filmaketa prestatzeko, zenbait dokumentu idatzi behar dira, hala nola:

**Sinopsia:** kontatu nahi dugun istorioaren ildo nagusiak laburtzen ditu. Indikatiboko orainaldian idatzia da, ez du elkarriketarik eta pertsonaia nagusiak ezagutarazten ditu.

**Gidoia:** filmaren sekuentziak aurkezten dituen elkarriketa segida bat da. Indikatiboko orainaldian idatzia da hau ere, eta sekuentzia bakoitzeko ekintza, tokiak eta gertaldiaren eguneko mementoa deskribatzen ditu.

Idazketa tailer bat proposa daiteke ikasgelan, sinopsi bat idazteko.

- ① Taldeka, film baten sinopsia asmaraztea. Filmaren bukaera ez da salatu behar, eta azken lerroen bidez irakurlea dilindan atxiki behar da ondoko gertaldietan gertatuko denari buruz.
- ② Ikasleek asmatu film honen lehen bi sekuentziak idatz ditzakete ere.

Hona hemen film batzuen sinopsi eta gidioen adibideak:

**Euskara:** [handiafilm.com/descargas/pressbook/Handia\\_pressbook\\_EU.pdf](http://handiafilm.com/descargas/pressbook/Handia_pressbook_EU.pdf)

**Frantsesa:** [www.cnc.fr/professionnels/jeunes-professionnels/scenariotheque](http://www.cnc.fr/professionnels/jeunes-professionnels/scenariotheque)

**Gaztelera:** [www.alvarocuevas.es/guiones/](http://www.alvarocuevas.es/guiones/)

## ● Analisia tailerra: Film-narrazioa

Ikasleei honako jarduera hauek proposatzen ahalko zaizkie:

- ① Zerrenda itzazu Norak bidaian zeharkatzen dituen lekuak. Izenda ezazu Nora agertzen den lehen eta azken lekua, bai eta filmean errepikatzen diren lekuak ere.
- ② Hauta ezazu adjektibo bat filmaren logika narratiboa kalifikatzeko: Lineala / zirkularra / errepikakorra / performatiboa / erregresiboa Eman itzazu zure hautuaren arrazoiak.
- ③ Filmaren narrazioa Noraren ibilbide pertsonalaren isla ote da? Azal ezazu protagonistaren bilakaera: bere nortasuna, proiektu profesionala eta pertsonala, familia harremanak...
- ④ Oroit zaitez ikusleak nola jakiten duen Noraren aitonaaren heriotzaren berri. Elkar itzazu honako idazketa prozesu hauek eta hitz zehatzak: deskribapena / elipsea / metafora / flashback. Zer ondorio ekartzen dituzte? Zer iruditzen zaizu?



## Zuzendaria

### ● Lara Izagirre, emazteei eta munduari buruzko emazte-begirada bat

Lara Izagirre Garizurieta Zornotzan (Euskal Herria) sortu zen, 1985ean. Zinema herrikoia eta familiarra izan zen –Willy Askatu telesaila, Mrs. Doubtfire komedia edo Walt Disney Pictures ekoiztetxearen animaziozko filmak– ikusle gisa izan zuen lehen esperientzia. 2003an Sofia Coppolak zuzendu zuen *Lost in Translation* filmak piztu zion pelikula egiteko nahia. 18 urte zituen orduan, eta ikus-entzunezko ikasketak hasi zituen. Euskal Herriko Unibertsitatean ikus-entzunezko komunikazioan diplomatu zen 2007an, eta ondotik New York Film Academy-n eta Kubako Escuela Internacional de Cine y Televisión zinema-eskolan segitu zituen ikasketak. New Yorken, bi urtez lan egin zuen hainbat ekoiztetxetan; horregatik, ez zen harritzekoa izan, Lara Izagirre, bere filmak sortzeaz gainera, ekoizle bilakatzea, bereziki Gariza Films<sup>1</sup> sozietatea sortuz. New Yorken, bere kultura zinematografikoa aberastu zuen, Kim's Video bideoklubera joanez. Leku hari esker, Quentin Tarantino, Coen anaiak, Robert Altman, David Lynch, Woody Allen, Chantal Akerman, Carlos Saura eta Ingmar Bergman-en lanak ezagutu zituen partikularki.

Hala ere, Andrea Arnold zuzendariaren 2009ko *Fish Tank* filmak zuen Lara Izagirreraren etorkizuneko lana baldintzatu. Orduan ohartu zen emazteek arras film guti zuzentzen zituztela. Hala, emazteen begiradaren arazoa agertuko zen Lararen filmetan. Bere lehen obrako –*Bicycle Poem* (2010) izeneko film labur mutua– protagonista bizikleta saldu aitzin Brooklyneko karriketan pirripitak ematen dion askatasunaz azken aldiz baliatzen den emaztea da. Bidaiaren, askatasunaren eta emaztearen gaiez gainera, *Nora* filmaren ezaugarri den 4/3 formatua erabili zuen orduan ere. Zuzendariari bereziki gustatzen zaion formatua da, zinema mutua oroitarazten baitio eta zinema mota horretarako interes estetiko handia baitu.

Film labur haren bidez, Lara Izagirrek bere manifestu artistikoa plazaratu zuen nolabait, eta bere obra osorako irakurketa-gako bat eskaini zien ikusleei.

## Filmografia

Fikziozko film laburrak

2010 *Bicycle poem*  
↳ [vimeo.com/51515595](https://vimeo.com/51515595)

2012 *Kea*  
↳ [vimeo.com/60155070](https://vimeo.com/60155070)

Dokumental moldeko film laburrak

2012 *Next Stop : Greenland*

2013 *Larroxa*  
↳ [vimeo.com/76936444](https://vimeo.com/76936444)

2013 *Jugando con la creatividad*

Fikziozko film luzeak

2015 *Un otoño sin Berlín*  
↳ [www.youtube.com/watch?v=015t5Fijie8&t=2s](https://www.youtube.com/watch?v=015t5Fijie8&t=2s)

2020 *Nora*  
↳ [www.youtube.com/watch?v=Ry31HsV-tho&t=1s](https://www.youtube.com/watch?v=Ry31HsV-tho&t=1s)

Bestalde, zinemagilea dokumentalari interesatu zitzaion ere, eta *Next Stop: Greenland* filma argitaratu zuen 2012an. Es ainiako kirolari hobeneretarik zazpi Groenlandiara joan ziren, Ulamertorsuaq mendi enblematikoa eskalatzeraz eta handik salto egitera.

Azkenik, Lara Izagirrek Bartzelonan bururatu zuen zinemagile formakuntza, eta han Kataluniako Zinema eta Ikus-entzunezko Eskolan (ESCAC) gidoi-idazketari buruzko master diploma ukan zuen. Orduan idazten hasi zen bere lehen film luzearen gidoia: *Un otoño sin Berlín*. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso zuen lan hura egiteko. Filma 2015ean argitaratu zen, eta hainbat sari eta aipamen berezi jaso zituen festibal anitzetan, besteak beste, 63. Donostiako Nazioarteko Zinemaldian. Irene Escolar aktore nagusiak urteko emakume aktore berri onenaren Goya saria irabazi zuen. *Un otoño sin Berlín* filmak Juneren (Irene Escolar) istorioa kontatzen du. Atzerrian bizi izan ondoren, sorterrira itzultzen da ustekabearekin. Eta itzultzea mingarria izan da: bere familia eta Diego (Tamar Novas) lehen maitalea aldatu dira. Hala ere, June familian duen lekua berreskuratzen eta gaztaroko ametsa gauzatzen saiatuko da: Diegorekin Berlinera joatea, hainbeste nahi duenaren bila. Horrela, bere lehen filmetatik bi motibo narratibo nagusitzen dira: emazte protagonista baten patua eta protagonistaren lekua edo nortasuna berriz definitzea.

*Nora* da Lara Izagirreraren bigarren film luzea. Zuzendaria 2017an hasi zen film hau idazten. Lehen-lehenik, maitasun istorio bati buruzkoa da gidoia, baina, azkenik, galdera existentzial bat duen emazte protagonista baten patuari buruzkoa. 2020an aurkeztu zuen filma, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian.

## ● Gako-hitzak / Gaiak

Euskal Herria / Eleaniztasuna / Kultura-aniztasuna / Bidaia / Road movie-a / Nortasuna / Belaunaldien arteko harremanak / Transmisioa / Familia / Determinismoa / Askatasuna / Indibidualismoa / Tradizioa / Modernitatea / Feminismoa / Alteritatea / Autobiografia

## ● Kolegioko programan diren nozioak

**Euskara:** **Ezagutza geografikoa:** Bizkaiko golkoa, Bizkaiko kostaldea (Urdaibai) eta Lapurdiko kostaldea (Ziburu, Hendaia). **Kultur ezagutza:** euskal diaspora munduan. **Gaur egungo euskal zinema:** aktoreak eta zuzendariak. **Hizkuntzaren ezagutza:** euskalkiak eta euskara batua.

**Gaztelera:** Autonomia erkidegoak, nork bere buruaz hitz egitea, bestea-rengana joatera ausartzea. **Bidaiak eta migrazioak:** Beste kulturekiko topaketak eta haien irudimena ezagutzea. Ikuspuntu eta ikuspegi desberdinak ulertzea.

**Ibilbidea:** Gaitasunen Oinarri Komune 5. arloa (**Munduaren antolaketa eta irudikapena:** ahoz eta idatziz adieraztea literatura edo arte obra batek sortutako sentipenak; zuzenean edo zeharka, batez ere eskolako ateraldi kulturaletan, estatuko eta nazioarteko ondarearen parte diren eta garaikideak diren literatura edo arte obrak ezagutzea. **Asmakuntza, elaborazioa, ekoizpena:** hizkuntzak ikastearekin batera, bizimoduaren eta kulturen aniztasuna ezagutzea).





## Emazte zuzendariak euskal zineman

2020an Donostiako Zinemaldian aurkeztu *Nora* filma aitzin, emazte batek zuzendu euskarazko fikziozko azken filma 2012an argitaratu zen: Mireia Gabilondoren *Amaren eskuak*. Zortzi urte pasatu dira bi film argitalpenaren artean. Alta bada, urtean bi edo hiru film luze egiten dira euskaraz. Joxean Fernandezek zuzendaritzapean idatzi zen *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuan, Iratxe Fresneda zinemagileak euskal zinemako emazte errealtadoren kopuru apalaren arazoaz ohartarazi zuen. Kopurua are apalagoa da fikziozko film luzeetan. Fresnedak *Irrintziaren oihartzunak*. *Euskal emakume zinemagileen begiraden arrastoak* bila artikuluan, Euskal Herriko emazte film egile garrantzitsuenen genealogia ez osoa proposatzen du.

2016an, Kulturaren Euskal Behatokiak jakinarazi zuen Euskal Herriko zinema-ikasleen % 55 emazteak zirela. Hala ere, ikasketen ondotik, % 35ek bakarrik egiten zuten lan sektorean.

### ● Mirentxu Loyarte, aitzindaria

Mirentxu Loyarte izan zen euskal zinemako lehen emazte errealtadorea. 1938an sortu zen Iruñean, eta Frantziako Zinemaren Kontserbatorioan ikasi zuen. 1978an, *Irrintzi* film laburra egin zuen. Lehen film experimental honekin nolabaiteko ausardia erakutsi zuen, bai Euskal Herriko poliziaren errepresioa salatzen duen eduki politikoagatik, bai filma bera egiteagatik. Zinemagileak ohiko narrazio-egitura bazterrerara utzi zuen, irudien sinbolismoa lehenetsiz. 1981ean, Antxon Ezeizak zuzenduriko *Ikuska* film laburren bildumaren parte zen *Euskal emakumeak* film laburrean, emazteen egoerari buruz galdekatu zituen jendarte klase desberdinetako emazteak. 1980ko hamarkadan, Mirentxu Loyarte Venezuelara erbesteratu zen arrazoi politikoengatik, eta ez zuen beste filmik egin.

### ● Euskal zinemagintzaren garapena

1981etik aitzina, zinezko kultura-politika sustatu zen euskal zinemaren alde. 1985ean, Mexikon bizi zen Ana Diez zuzendariak *Elvira Luz Cruz, pena máxima* dokumentalarekin hasi zuen bere ibilbidea. Elviraren istorioa kontatzen du dokumentalak; bizi guziriako kondenatua izan zen hura, lau seme-alabak hiltzeagatik. 1989an, *Ander y Yul* fikziozko film luze bat egin zuen Ana Diezek, eta filmak Goya saria eskuratu zuen. 1980ko hamarkadako Euskal Herriko droga gogorren kontsumoaren eztabaira eta indarkeriari buruzko gogoeta eskaintzen zuen obra hark. Gero, beste zuzendari batek hartu zuen Ana Diezen lekua euskal zineman: Arantxa Lazkanok. Ibilbide laburra izan



zuen, ordea. *Maider* (1989) lehen film laburra eta *Urte Ilunak* (1995) film luzea egin zituen.

1993an, Mirentxu Purroyk errepresio frankista ere aipatu zuen *Denboraren gibelean* fikziozko filmean. Kazetari gisa lan egin eta Xibertan 1977an egin elkarrizketen idazteaz arduratu ondoren (euskal mugimendu politikoko kide guziren arteko –EAJtik ETA militarrean– bilkura klandestinoak), EITBren *Mundo Hoy* dokumental atala programatzeaz arduratu zen.

Euskal gatazka zineman erakutsi zen ondotik ere, 2000n Yoyes argitaratu zuen Helena Taberna zuzendariaren bidez. Dolores Gonzalez Katarain ETako militante ohiaren patu tragikoa kontatzen du film honek. Ondotik, Helena Taberna zinemagile nafarrak gizarte gaiei eta emazteen potrefei buruzko fikziozko dokumentalak eta filmak egiten segitu zuen.

### ● 1990eko hamarkadatik gaur arte

1998an Kimuak sortu zen, euskal film laburrak sustatzeko erakundea.

Bego Vicario animaziozko film experimentalen zuzendaria bereziki nabarmendu zen film labur batzuk bakarrik edo taldean –Hau azkena, Ageda kopla taldea, Atxur animazio taldea– egin zituelako. 1996an, animaziozko film onenaren Goya saria jaso zuen *Pregunta por mí* bere film laburrak. Euskal Herriko Unibertsitateko momentuko ikasleekin edo ikasle ohiekin egin dituen azken film laburrak, *Beti Bezperako Koplak* (2016), *Areka* (2017), *Ehiza* (2020) nazioarteko hainbat festibaletan hautatu eta saritu dira.

2000tik aitzina, emazte zinemagile berriak agertu ziren, haien artean Mireia Gabilondo. 2005ean film laburretik

film luze egin zuen jauzi, *Kutxidazu bidea* Ixabel komediarekin. 2012an *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala argitaratu zuen, beste lau zuzendarirekin. 2013an, *Amaren eskuak* film luzea plazaratu zuen. Eta, azkenik, *Erlauntza*, 2020an.

2016an, Kulturaren Euskal Behatokiak jakinarazi zuen Euskal Herriko zinema-ikasleen % 55 emazteak zirela. Hala ere, ikasketen ondotik, % 35ek bakarrik egiten zuten lan sektorean. 2015ean, Euskal Herrian ekoitzi filmen artean, emazte gidoilariak % 5,6 besterik ez ziren. 2016an, (H)emen elkarteak sortu zen. Zinemako eta ikus-entzunezko emazte profesionalak biltzen ditu elkarteak, eta sektore horretan aukera berdintasunaren alde lan egiten du. Lara Izagirre, *Nora* filmaren zuzendaria, elkarteko lehendakarietak bat da.





## Xede oharra

### Familia, heriotza eta bidaia

Zuzendariak bere xede oharrean<sup>2</sup> kontatzen du nola inspiratu zen bere historia pertsonalaz Noraren bidaiaren kontakizuna irudikatzeko.

«Zortea izan nuen aitona Pedrokekin hamazazpi urte arte bizi ahal izateko. Gurasoak bidaiatzera joaten ziren ba-koitzean, nire anaia eta biok Citroën Visa marroian sartu eta mendira eramaten gintuen perretxiko bila. Nire amona Marga, Pedoren emaztea, aspaldidanik hila zen, ni jaio nintzenean. Badakit, eskailerak igotzean, haren belaunak karraska ari zirela, eta nire amaren gaur egungo antzeko eskuak zituela, eta, seguru asko, nireak bezalakoak bihar.

Aitaren aldetik, Ramón aitona duela bi urte hil zen, Nora idazten ari nintzela. Herriko begi urdin ederrenak zituen gizona zen hura, maitagarria eta dotorea, lasaia eta umila, azukrearen eta familiaren maitale handia. Aldiz, nire amona Bizenta, ni bezalako sorgina eta nire lagun mina dena, 88 urterekin oraindik sasoi betean dago. Siestarik onenak egi-ten ditut haren ondoan. Eta, zalantzarik gabe, munduko sukaldaririk onena da.

Nire aitona-amonek inspiratu ninduten Nora filma egiteko orduan. Lau pertsona oso desberdin dira; eta momentu zailak bizi izan badituzte ere, honako bizitza-filosofia hau izan dute beti: «Zorigaitzari begitarte ona egin».

Horregatik da Nora film baikor eta atsegina. Honakoa du aipagai: maite dugun pertsona baten heriotzak nola jartzen gaituen gure bizitzaren aurrean eta erabaki bat hartzerantz bultzatzen gaituen: aurrera egin edo ihes egin. Film arina eta udakoa da; aldi berean, tristeia eta alaia da. Hogeita hamar urteko emakume baten, Noraren, bidaia kontatzen du. Ahal bezalako furgoneta batean bidaiatzen du, Nicolás aitona galdu ondoren. Helburua da euskarazko film hau ikusle ugariengana iristea. Emakume protagonista batek gidatzen duen filma da, eta emakumeak buru dituen talde sortzaile batek egina».

<sup>2</sup> Prentsa oharretik jaldi xede oharra

↳ [www.norafilma.com/wp-content/uploads/2020/09/Pressbook\\_Nora\\_ES-1.pdf](http://www.norafilma.com/wp-content/uploads/2020/09/Pressbook_Nora_ES-1.pdf)



### ● Xede oharra

Xede oharra zuzendari batek idatzi dokumentua da. Filma egiteko behar diren finantzabideak bilatzea du helburu. Xede oharra filma egiteko prozesua eta hautu estetikoak aipatzen ditu batez ere. Ikasleek honako galdera hauei erantzuten ahalko diete:

- ① Irakur ezazu Nora filmerako zuzendariak idatzi duen xede oharra. Zein da bere filmaren abiapuntua? Zein da xedea?
- ② Erran ezazu filmaren generoak zein diren: ekintza-filma, komedia, dokumentala, road movie-a, thrillerra, film biografikoa, komedia erromantikoa, komedia musikala, westerna, abentura-filma, film psikologikoa... Ikasleek beren hautuen arrazoiak emanen dituzte xede oharretik bildu hitzak erabiliz eta filmeko elementuak aipatuz eta deskribatuz.

### ● Idazketa tailerra

Nora filmaren zuzendariaren arangisan, irudika ezazu film baten xede oharra elementu zehatz batetik abiatuz: anekdota bat, leku bat, pertsona bat, hitz bat, irudi bat (argazkia, marrazkia, film batetik hartu fotograma, etab.).

Aipa itzazu zenbait elementu estetiko eta eman itzazu zure hautuen arrazoiak: leku mota, pertsonaiak, atmosfera (soinua, argia...), plano mota, kamera finko bat edo mugimenduak (travelling-ak, panoramikoak...).





## Ane Pikaza

### Artista osoa

Noraren pertsonaia antzezten duen Ane Pikaza 1984ko urriaren 26an sortu zen Bilbon (Bizkaia, Euskal Herria). Ane aktorea da eta hiru film luzetan jokatu du: *Nora* (2020), *Ane* (2020) eta *El doble más quince* (2019). Ane Pikaza ETB telebista kateko *Goenkale* telesaileko aktorea izan zen ere. Azkenik, ilustratzailea ere bada. Horregatik, tarte zinez ttipia dago bere bizi pertsonalaren eta *Nora* filmean interpretatzen duen Noraren rolaaren artean; izan ere, filmean agertzen diren marrazki eta irudiak bereak dira. Hona hemen Ane Pikazaren zenbait hitz bere formakuntzari eta ibilbide artistikoari buruz<sup>3</sup>:

«*Beti pentsatu izan dut pertsona bat baino gehiago izan, eta bizitza bat baino gehiago bizi nahi ditudala. Agian horregatik erabakiko nuen maite dudak guztia egitea. Arte ederrak eta antzerkia ikasi nituen, eta denborarekin oreka berezi batean elkarbizitzen jakin dut betiko desio horiek. Oraindik ere nire formazioarekin jarraitzen dut, bi mundu uztartuz; batzuetan elkarrengandik oso gertu daudenak, beste batzuetan elkarri urrunetik begiratzen diotenak eta askotan bidea eskutik helduta egiten dutenak.*»

«**Beti pentsatu izan dut pertsona bat baino gehiago izan, eta bizitza bat baino gehiago bizi nahi ditudala**»

Ane Pikaza



Ane Pikaza. Urdinean murgiltzean bilduma. 2017 © Ane Pikaza



### Emazteen begirada eta askatasunaren bilaketa

Norak euskal kostaldean egiten duen bidaia inizatikoan murgiltzen gaitu Lara Izagirrek. Protagonistari batzuetan ezbehar irigarriak gertatzen zaizkio, eta beste batzuetan dramatikoak. Ondorioz, zenbaitetan, hura babesten zuten inozentzia eta ametsak bortizki inarrosiak dira, eta orduan emazte gaztea erreferentzia markak galtzen dituen mundu batean sartzen da.

Norak emazte gisa bizitzen dituen eguneroko esperientzia guztiak sentitzen ditu ikusleak: familiarekin dituen harremanak, gizonekin eta haien igurikapenekin duen harremana eta bere lanbide xedeak. Lara Izagirrek emazte-begirada batez filmatzen du protagonista, ingelesez *female gaze* deitu ikuspegitik.

Kontzeptu berri hori horrela formulatu zen *#metoo*-ren garaian, eta Laura Mulvey kritikari eta zuzendariak 1975ean definitu zuen *male gaze*-aren nolabaiteko ifrentzia da. Alice Guy lehen emazte errealizadorearen filmek jadaneko *female gaze* bat proposatzen zuten: emazteak subjektu gisa filmatzea, eta ez gizonen desirazko objektu gisa. Iris Brey idazleak, *Le regard féminin, une révolution à l'écran* (2021) saiakeran, emazteen begirada definitzen du bi prismaren arabera: narrazioaren ikuspegitik, pertsonaia nagusia emazte gisa identifikatzen da, istorioa bere ikuspuntutik kontatzen da eta ordena sozial patriarkala dudan ezartzen du; eszenaratzearen ikuspegitik, film egileak emazteen esperientzia sentiarazi behar du eta ez du ikuslearen pultsio begilizuna sustatu behar.

Lara Izagirrek azaldu duenez, emazte arrunt baten askatasunaren bilaketa erakutsi nahi izan du filmean; emazte hura ez da baitezpada oso ausarta, eta edonor identifika daiteke harekin. Filmaren hasieran, Noraren bihotza zatitua da: zaintzen duen familia anitz maite du, baina, funtsean, askatasun egarria du. Film honen eta *Coming of age* eta gisa horretako filmen artean bada antzekotasunak; hazkunde pertsonaleko funtsezko mementoak kontatzen dituzten ikaskuntza filmak dira

—adibidez, haurtzarotik edo nerabezarotik helduarora pasatzea—. Egia da, bai, Norak ez dituela 18 urte, baina 30... Baina, adin hori baino lehen, ez du bere baitako alde hori ikertzeko paradarik izan.

Kontakizunaren beste elementu nagusi bat arrakasta sozialari buruzkoa da. Norak bere bidaiei buruzko artikulatuak idazten ditu aldizkari espezializatu ezagunetan. Amets hori harentzat eta burasoentzat desiragarria den arrakasta eredu bati dagokio. Baina, emazte gaztea laster ohartzen da egiazki ez dela bidaiari handia izateko egina. Herstura bultak dituelarik gasolindegiko langileak ureztatzen duen gertaldia xok terapia bat da Norarentzat. Orduan, bere askatasuna berreskuratzen du eta ulertzen du ilustratzaile gisa lan egitea funtsezkoa dela harentzat.

### Mugarik gabeko espazioa

Askatasunaren bilaketa hori oztopo fisikorik (mugak) eta hizkuntza-oztoporik ez duen espazio batean gertatzen da. Euskal Herriko egoera geopolitikoak hainbat hizkuntza erabiltzeko aukera ematen du: euskara, frantsesa eta gaztelera.

Lara Izagirrek dioenez, euskarazko filmetan ez du aurkitzen beste hizkuntzekin egunero duen egiazko harremanik. Izan ere, haren ustez, film hauek ez dute erakusten bertako hiztunek egunero hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dutela. Horregatik, sinesgarritasuna lortzeko, lau hizkuntza erabili ditu film osoan. Era berean, erakutsi nahi izan du familia berean eta leku berean hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi direla. Noraren familian, aitonak eta aitak gazteleraz hitz egiten dute, amak batzuetan euskaraz eta besteetan gazteleraz. Norak, aldiz, euskaraz eta gazteleraz hitz egin du, ingelesa erabiltzen du lanerako eta frantsesez nola edo hala mintzo da Hendaian dagoelarik. Muga fisikoa ere lausoa da. Zergatik? Norak bidaia osoan erabiltzen duen denek hizkuntza bat dagoelako: euskara.

3 Cet autoportrait est tiré du portfolio d'Ane Pikaza: [anepikaza.com/?page\\_id=18](https://anepikaza.com/?page_id=18)









## Musika iparrorratz gisa

Paula Olaz eta Pascal Gaigne konpositore bikoteak egin du filmaren soinu banda. Errepertorioko musika ere entzuten da *Nora* filman, Izaro kantariak bere bi abesti jotzen baititu: *Nora* eta *Tu escala de grises*, hurrenez hurren, euskaraz eta gaztelerez.

### ● Aspaldiko lankidetza

Paula Olaz zinema, antzerkia, dantza, telebista eta bideo-jokoetarako musikagilea da. Soinu banden konposizioan berezituriko ikasketak egin zituen Berklee College of Music-en, Bostonen (AEB). Horrekin batera, neuropsikologia klinikoko ikasketek psikologia kognitiboan espezializatzeko aukera eman zioten, eta, bereziki, filmetako jatorrizko soinu bandetan.

Atzerrian ikasi ondoan, Pascal Gaignerekin lan egiten hasi zen. Hainbat filmetako musiken konposizioetan parte hartu du (besteak beste, Pascal Gaignek film-musikarik onenaren Goya saria irabazi duen *Handia* filmean), baina *Nora* filmarekin egin du lehen aldiz film baten jatorrizko soinu bandaren konposizioa bikotean.

Astronomiarako zaletasuna du, eta unibertsoaren soinu-munduari buruzko ikerketak burutu ditu. 2017an, Londresko Air Studios famatuan, Europako Espazio Agentziarentzat (ESA), Hubble teleskopioak hartu irudi errealetan oinarrituriko obra grabatu eta zuzendu zuen. Geroztik, Suitzan (CERN & HEAD) *data sonification*-ari buruzko ikerketak segitzen ditu, Europako fisikariekin eta astronomoekin elkarlanean.

Pascal Gaignek film, ballet eta antzerki lan ugariarako konposatu ditu film-musikak, besteak beste, 1992an Cannese-ko Zinemaldiko Epaimahaiaren saria irabazi zuen Victor Ericeren *El Sol del Membrillo* film luzerako, 1999an Cannese-ko Zinemaldiko Kritikaren Astean hautatua izan zen Iciar Bollainen *Flores de otro mundo* film luzerako eta Montxo Armendarizen *Silencio Roto* film luzerako. Zinemako musikaren alorrean, sari anitz jaso ditu, haietan film-musikarik hoberenaren Urrezko Pentagrama saria Buenos Airesko Nazioarteko Zinemaldian, 2000n, Salvador Garcíaren *El otro Barrio* filmaren musikagatik; 2006ko Europako musikagile onenaren saria Daniel Sánchez Arévaloren *Azul Oscuro Casi Negro* filmaren musikagatik; eta film-musikarik onenaren saria, Malagako Zinemaldian, 2007an, Ramón Salazarren *20 Centímetros* filmaren musikagatik.

**“Zinemarako musikan, gehienik interesatzen zaidana, filmaren sortzailea ulertzea da.”**

Paula Olaz, musikagilea

### ● Noraren tangoa eta Izaroren kontzertua: bi geldialdi musikal eta arin, oztopoz beteriko ibilbidean.

Norak bidaian zenbait makur pairaturik ere, memento arinagoak bizitzen ditu, eta memento horiek maiz musika-sekuentzia alaiaren bidez hasten dira. Lehen musika-sekuentzia bidaiaren lehen etapan agertzen da. Noraren autoa matxuratua da eta emazte gazteak ibilgailua Mari-Feliren baratzean aparkatzen du. Sekuentziaren hasieran, Nora ez da kasik mugitzen. Gidariaren lekuan jarria da, eta autoko atea irekia du. Sagar bat jaten du, paisaiari begiratzen dio eta eguneko horoskoporako iragarpenak grabatzen ditu. Erdiko planoak aukera ematen du Nora hiru aldiz hesten duen enkoadraketa ikusteko: atearen koadroa, autoaren gaineko pikondoaren adarrak eta kameraren koadroa (fotograma:00:26:38). Tren batek zeharkatzen du koadroaren gibelaldea, eta mugimendu horrek Noraren gelditasuna areagotzen du. Geroago, emazte gazteak kasete bat sartzen du autoaren irakurgailuan. Lehen plano batek erakusten du mugimendu hori.

Laburbilduz, bi planok bakarrik eraikitzen dute sekuentziaren hastapena.

Gero, Carlos Gardelek kantatu *Golondrinas* tangoa entzuten delarik, planoak biderkatzen dira eta enkoadraketa ez da hain zurruna. Plano finkoa utzi eta pertsonaiaren mugimenduak segitzen ditugu: memento batzuetan, kamera erdi subjektibo eta aske batek Noraren tango-dantzaren mugimenduei jarraitzen die, eta hasierako erdiko plano finkoarekin aldizkatzen da. Plano zabal eta hertsien arteko txandakatze horrek erritmo dinamikoa sortzen du, Nora autotik kanpo bultzatu duen musikak bezala. Kasete irakurgailutik jalgitzen den musika horri diegetikoa deitzen zaio: eszenaren ekintzaren parte da; Noraren pertsonaiak entzuten du.

Hala ere, fruitu baratzean Nora tango inprobisatua dantzatzen ari delarik, batzuetan, soinua estradiegetiko bilakatzen da. Orduan, desinkronizazio bat dago kameraren eremuko irudiaren eta soinuaren artean. Konparazioa, Noraren boza entzuten da horoskopoparen iragarpenak diktatzen ari eta Gardelen ahotsa entzuten da *Golondrinas* kantatzen, soinu diegetikoen intentsitate berarekin, Nora autotik urrun den fruitu baratzean dantzatzen ari delarik edo bere telefonoan mintzatzen delarik. Muntaiak eroa da, askea, libratzen ari den pertsonaiaren irudira. Memento horietan, beraz, soinua ez da diegetikoa. Desinkronizazio hori irudiaren eta soinuaren sinkronizazio perfektuarekin aldizkatzen da. Horrek erritmo bikoitza sortzen du pantailan. Gainera, musika

eta soinu estradiegetikoa nagusi diren mementoak, eguneroko biziko soinuak, beraz diegetikoak, abantzu ezabatzen dira eta orduan iduri du Nora baratze-ko belarraren gainean lerratzen ari dela. Nora errealtate-rik ateratzen da kasik, dantzatzen du, arinki. Horrela bururatzen da sekuentzia. Gardelen tangoa entzuten da oraino, baina Norak bizkar zakua prestatu eta ibilaldiari ekiten dio. Badirudi musika zinez Noraren akuilatzailea izan dela.

Musika molde diferentean erabiltzen da Izaro kantariaren kontzertuan, baina arintasun efektu bera sortzen du.

Kontzertua eta taberna; Norarentzat jendearengana joateko parada egokia da. Tabernan sartzean, Norak irriñoa du ezpainetan. Kontzertuak, musikak eta dantzatzen duten pertsonak berehala alaitzen dute. Izarok eta bere musikariek jotzen dituzten musika eta abestiak diegetikoak dira. Kamerak ostatu barnea filmatzen duelarik, mementoko intentsitatea bizitzen dugu pertsonaiekin. Kamerak kanpotik filmatzen du- elarik, entzute-puntua barnekoa da oraino; ez da gehiago Noraren entzumen-pertzepzioa islatzen, baizik eta trago bat edan eta kanpoan hitz egiten ari diren pertsonena. Ostatu barneko entzuleen zurrumurrua eta soinuaren oihartzuna besterik ez dira entzuten. Gainera, soinuak espazioarekin bat egiten du, Norarentzat oxigeno-burbuila bat sortzeko. *Nora* kantua bereziki filmerako sortu zuen Izarok. Kantatu baino lehentxeago, Izarok *Nora* abestia eskainiko du «Iparraren atzetik erdi galduta dabilen horrentzat». Kantua, orduan, guztiz bat dator protagonistaren egoera emozionalarekin.

Aitzineko sekuentzian bezala, musikak eragin alegeragarria izanen du Norarengan. Kontzertuaren bururapenean, gaua umore onean segitzen du, Josebarekin mintzatuz eta goxatuz.





### ● Nora kantua

Nora abestiaren bideoklipa ikus dezakezue, eta ikasleei proposa diezaiekezu falta diren hitzak bete ditzaten.

↳ [www.youtube.com/watch?v=gY\\_tN63sm4](https://www.youtube.com/watch?v=gY_tN63sm4)

#### Izaro Andres

Inoiz kontatuko badute nire .....  
 Zenbat hondar aletan kabituko da nire .....?  
 Inoiz ..... badute eman dudan guztia  
 Zenbat eman dudan kanpora?  
 Zenbat dudan barrura?  
 Jakin nahi nuke zer ..... duen itsasoak barrutik  
 Ilargi guztiak agertu arte zurekin ..... egin  
 Biluzik ispiluari ..... txiki bat egin  
 Zer ikusten dudan kanpotik?  
 Zer ikusten dudan barrutik?  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik

Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Ez dezatela esan maite ez nintzenik  
 Inoiz kontatuko ..... nire istoria  
 Zenbat ..... aletan kabituko zait nire memoria?  
 Inoiz kontutako badizut izan naizen guztia  
 Jakingo al dut ..... zein den egia?  
 Jakingo al dut kontatzen zein den egia?

Falta diren hitzen zerrenda:  
 istoria / memoria / kontatuko / usain / dantzan /  
 keinu / badute / hondar / kontatzen



## Narrazioa: bidaia inizatikoa eta barnekoa

- Road movie-a: genero zinematografiko baten definizioa eta honen sorrerari buruzko xehetasunak

1960ko hamarkadatik aitzina, road movie zinema-generoaren agertzeak eta loratzeak konfirmatu zuen zine-mak ardurenean aktualitatea beste gisa batez adierazi eta garaian garaiko haserreak edo beldurrak erakusten dituela.

Bi filmek ederki irudikatzen dute generoaren bat-bateko agertzea: Arthur Penn-en *Bonnie and Clyde* (1967) eta Dennis Hopper-en *Easy Rider* (1969). Bi road movie haiek 1960ko hamarkadatik aitzina sumindu zen gazteria amerikarraren isla dira, sistema patriarkalaren eta Estatu Batuetako armadak Vietnamen egiten zuen gerlaren kontra jazarri zen gazteria haren isla hain zuzen. Bizimolde eta pentsamendu berri baten aitzindaria zen gazteria hura, eta haren helburua zen eredu kontserbadore zapaltzailearekin eta gogoa deuseztatzen zuen kontsumo gizarte berriarekin haustea. Nolabaiteko askatasuna berreskuratu nahi zuten gazteek. Orduan hasi ziren kontra-kultura mugimenduak, haietan hippyena. James Dean aktoreak, *Rebel Without a Cause* (Nicholas Ray, 1955) filmean, gazte amerikar haserretu-aren irudia ezin hobeki finkatu zuen.

Horretan da road movie-a paradoxa bat. Izan ere, generoa ezaugarritzen duen elementuetarik bat garraiobidea da, eta zehazki, autoa. Protagonistak bidaiatzeko beribila gidatzen du. Alta bada, ibilgailu hori XX. mendeko modernitatearen eta kontsumo gizartearen ikurretarik bat da. 1960ko hamarkadako autogintzaren industriaren garapenaren eta errealtatearen beste elementu batek ere parte hartu du errepideko filmen garapenean: Chicago eta Los Angeles lotzen dituen Route 66 errepideak. Errepide hori behin eta berriz erakusten da road movie filmetan, eta generoaren inguruko iruditeria kolektiboaren sorreran eragin nabarmena izan du.

Gainera, road movie-a westernaren aldaera bat da. Western bezala, road movie-a hertsiki lotua da Estatu Batuetako lurraldearekin eta mendebaldeko konkistaren historiarekin. Western gainbeheraren iragarlea da berez, seinalatzen baititu Mendebaldearen bukaera, aitzindarien libertatearen amaiera eta Ekialdeko legearen nagusitzea. Pertsonaia batek bereziki irudikatzen du askatasuna edo askatasunaren aldeko borroka: cowboyak.

Askatasunaren, basatiaren eta zibilizazioaren arteko mugaren gaia dago western generoaren muinean. Are gehiago, Estatu Batuetako nortasunaren eraikuntzaren afera dago bere oinarrian. Espazioa konkistatzea eta "zibilizatzea" kausitu ondoan, mendebaldeko mugimendua gelditzen da. Orduan, ez da gehiago gibelarazi nahi den mugarik, ez eta konkistatu eta kabalentzat eta laboreentzat zerratu behar den lurrik ere. Hala, Mendebaldearen bukaera mendebaldeko izaki amerikarraren nortasun galeraren isla da. Mendebaldeko izaki amerikar horrek bere burua berriz definitu behar du. Helburu berriak aurkitu behar ditu. Estatu zibilizatu horren sortzearen kontra borrokatu behar du; izan ere, batzuetan, iduri luke estatu hori mendebaldeko aitzindariak eta egoera «basatian» ziren lekuak baino zitalagoa dela. Diru probetxuak eta etekinaren bilaketa dira zitalkeria horren erantzule nagusiak.

Road movie generoa westernaren azpigerotzat hartzen da, nortasunaren gaia errepikatzen duelako, baita westernaren parte diren irudiak eta pertsonaiak ere: errepidea, eremu zabalak, basakeria eta zibilizazioaren arteko dualtasuna, pertsonaia librearen legearen ordezkarien eta moralaren aitzinean...



Beraz, road movie-ak irizpide formalak, estetikoak eta soziologikoak biltzen ditu. Lehenik eta behin, hiru etapa nagusi dituen narrazio mota bat da: hasieran, protagonistak betiko inguruarekin hausten du (familia, gizartea...); gero, filmari errepideko bidaiariaren erritmo berezia ezartzen dio; eta, azkenik, bidearen bukaerara heldu bada ere, pertsonaia bihurriak bideari berriz ekiten dio. Mugimendua berezkoa du generoak. Bidaian zehar, atse-denaldiak, geldialdiak eta hasieran pentsatu ibilbidearekin bat ez datozen itzulinguruak gerta daitezke. Saihesbide horiei esker pertsonaia nagusiak topaketak egiten ditu, abenturak bizi ditu eta aldatzen da. Protagonista ibilbidean gelditzen da ere, jateko edo ibilgailuko ezantza ontzia betetzeko... Orduan agertzen dira road movie-aren leku eta irudi tipikoak –zerbitzuguneak, motelak, diners jatetxeak... –.

Azkenik, bidaia fisikoaz gainera, barne-bidaia egiten du protagonistak. Pertsonaia nagusia gehienetan norbere buruaren bila dabil. Ibilbidearen bukaeran, espaziala baino espiritualagoa da maiz bere bilakaera. Bidaia hasi aitzin utzi zuen ingurumenera itzul daiteke ere, zenbaitetan. Horregatik, bai barne-bilaketak bai abenturek road movie-aren eta literaturaren –eta batez ere ikaskuntzako eta abenturazko nobelaren– arteko lotura garbia erakusten dute. Literaturaz eta zinemaz haratago, bidea metafora bat da, arteetan behin eta berriz erabiltzen den motibo bat da, bizitzea bidea egitea dela adierazteko. Menturaz, Stendhal-ek zuen hobekien laburbildu bidearen eta nortasunaren bilaketaren arteko gurutzatze hori, *Le Rouge et le Noir* (1830) eleberrian. Lehenik ikaskuntzako nobela egituratu izan du gurutzatze horrek, eta gero road movie-a. “*Eleberri bat, bide batean zehar dabilen ispilua*” zela zioen Stendhalek. Idazlearen aipuaren balio errealistaz eta arteak naturarekiko duen funtzio mimetikoaz haratago, ispiluaren motiboak dimentsio metaliterarioa edo meta-linguistikoa azpimarratzen du. Izan ere, miraila efektuak berekin dakar begiratu elementuaren edo norbere buruaren isla. Noraren marrazkiak Euskal Herriaz proposatzen dituen mirailak eta isla dira. Zeharkatzen dituen paisaien bidez ere definitzen da protagonista. Inguruneak baldintzatzen eta moldatzen du pertsonaia, bizitzen dituen abenturen arabera.

Nortasun gaiek eta road movie-a osatzen duten errepi- kapenek izaera unibertsala ematen diote generoari, eta espazio-denbora amerikarrean kokatzen zen hastape- neko egitura gaindiarazten dute. “Errepidean egin bidaia baten kontakizunak daude munduko kultura”<sup>4</sup> eta zinema gehienetan.

## ● Nora filma: “anti-road movie” bat?

Donostiako Nazioarteko Zinemaldian *Nora* filmaren aurkezpenaren kariatara Lara Izagirreri egin elkarrizketa batean, zuzendariak “anti-road movie”-tzat jo zuen bere filma<sup>5</sup>.

Filma anti-road movie gisa defini dadin, konparazio ele- mentuak behar ditugu.

Izan ere, *Nora* filmak, lehen behakoan, road movie-aren ezaugarriak ditu. Road movie-aren ohiko egitura narrati- boia du: Norak ez du amaren bizi bera nahi, hau da, ezkon- du eta familia bat sortzea. Hark bidaiatu eta libre izan nahi du. Orduan ulertzen da filmaren alderdi feminista. Bestalde, Euskal Herrian hasten duen bidaia road trip bat da. Ikusleak moteltasuna eta urritasuna bizitzen ditu pro- tagonistarekin: autoak aitzinatzeke zailtasunak ditu, baina kausitzen dituen jendeek aurrera egiten eta beldurrak gainditzen laguntzen dute. Filmeko erritmo artekatua, hainbat porroten eta asko maite zuen aitonaren herio- tzaren ondotik, bere bizia berriz definitu behar duen eta haztamuka dabilen pertsonaiaren isla da. Hala, bidaia espaziala baino gehiago, barne-bidaia da.

Hala ere, *Nora* filmak road movie baten ikusizko elemen- tuak (errepidea, gasolindegia, autoa...) edo elementu sinbolikoak baditu ere, itzuleraren ideiak egituratzen du kontakizuna eta ez beste norabait egin bidaiarenak. Norak bere galderen erantzunak betiko leku eta jendeekin aurkituko ditu.

Gainera, besteek ulertarazten diote Norari egiazki nor den. Protagonistaren nortasunaren bilaketari erantzuten dio filmak hasieran; *Nora* agertzen da plano ertainean, bere marrazkiak aitonari erakusten ari. Geroago, aita, gau bateko maitalea edo Ximunen alaba xoraturik daude emazte gaztearen marrazkiekin, eta bere talentuaz ohar- tarazten dute.

Iniziazio-bidaiaren bukaeran, Norak bere bizi proiektua berriz definitzen du: Euskal Herrian egin duen bidaiari bu- ruzko eleberri grafiko bat idatzi eta karta ilustratuak egin nahi ditu. Marrazkia izanen da bere sorkuntzen oinarria. Hala, bere baitan sakon bilatzeari eta inguruko pertsonen bihotz oneko oharrei esker, Norak bere bidea aurkitzen du. Hala ere, badirudi Norak Hendaiako liburu dendara egin lehen bisitan erosi zuen Japoniako marrazki figuratiboei buruzko liburuak inspiratzen diola eleberri grafikoaren proiektua.

## “Eleberri bat, bide batean zehar dabilen ispilua”

Stendhal

Filmeko sekuentzia bat itzulera xede horren adierazgarri da, eta Noraren nortasuna eta proiektua zehazteko aku- ilatzaile inportantea da; Gardel-en *Golondrinas* kantua entzuten den sekuentziaz ari gara hemen [ikus “Musika iparrorratz gisa”].

Autoan izan duen matxuraren ondorioz, emazte gaztea geldirik da.

Tango hori 1930eko eta 1940ko erreperatoriokoa da, hitz nostalgikoak zituzten tango horietakoa, hasierako lehen tango gordin samarrak ez bezalakoa (XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran). Abestiak per- tsona baten sorterriaren nostalgia aipatzen du, baina, paradoxikoki, pertsona hori aske gisa definitzen da. *Golondrinas* hautatu zuen Carlos Gardelek lelo gisa *El tango en Broadway*<sup>6</sup> (Louis J. Gasnier, 1934) komedia musika- lerako, non aktorea baitzen eta errerealizazio-artistikoan parte hartu baitzuen. Gardelek berak antzeztu prota- gonista New Yorken bizi da, baina amesten du Buenos Airesera itzultzea.

Hala, sekuentzia horretan entzuten den tangoak zendu berria den Noraren aitonaren jatorria oroitarazten du.

Azkenik, sekuentzia bukatzen delarik, emazte gazteak bere autoaren aparkaleku berria den fruitu baratzea uzten du, ibiltzera joateko. Orduan, Mari-Feliren etxaldearen itzulua egiten du, Gardelen “He de volver” (“Itzuli behar dut”) azken bertsoa entzutean.

Azken planoan nortasun bikoitzekoa da, Noraren alderdi eta jatorri guziak biltzen baititu. Eta planoan paradoxikoa ere bada; irudian bi aldiz ageri den itzuleraren ideia horrek Norak abiatu duen bilaketa mugimendua zapuzten du. Azkenean, itzulerako bidaia horretan berriz aurkituko du Norak bere bidea.

Bestalde, ohartarazi behar da *Nora* neska izena dela, segur.

Eta, euskal gramatikan, adlatiboa ere da, leku batera- ko mugimendua adierazteko baliatzen den kasu marka (-(r)a postposizioa). Halaber, *Nora* hertsiki lotua da eus- kal gramatikako ablatiboarekin, “nondik?” galderari erantzuten dion eta jatorrizko puntua adierazten du kasu markarekin.

Azkenik, filmaren izenburuan alderantziz idatzi “R” letrak azpimarratzen du *Nora* dudana dagoela bere emazte gazte biziari eman behar dion zentzuari eta norabideari buruz. Ulertzen da zalantzan dagoela eta bide bat jorratzen saiatzen dela, zenbait aukera kontuan hartuz, haietan huts egitearena (edo bere bizia “alderantziz” idaztearena).

Bibliografia:

Moser, W. (2008). Présentation. *Le road movie : un genre issu d’une constellation moderne de locomotion et de médiamotion*. Cinémas, 18(2-3), 7–30. [↪ https://doi.org/10.7202/018415ar](https://doi.org/10.7202/018415ar)

[↪ https://doi.org/10.7202/018415ar](https://doi.org/10.7202/018415ar)



## ● Road movie-a

Road movie generoa ikasleekin lantzen ahalko da, honako galdera hauen bidez:

- ① Norak bidaia bati ekin dio. *Road movie*-a bidaia-kontakizun baten inguruan eraikitzen den zinema-generoa da. Aipa itzazu road movie adibide batzuk. Bidaiaz gain, zein dira genero horretako beste osagaiak? Uste duzu *Nora* road movie bat dela?
- ② *Nora* filma liburu bat balitz, zer eleberri mota litzateke? Eleberri beltza / fantastikoa / abenturazkoa / erromantikoa / ikaskuntzazkoa / surrealista. Zergatik?
- ③ Lara Izagirre filmaren zuzendariaren arabera, *Nora* “anti-road movie” bat da. Ados zaude harekin? Zergatik?

4 Moser, W. (2008). Présentation. *Le road movie: un genre issu d’une constellation moderne de locomotion et de médiamotion*. Cinémas, 18(2-3), 7–30. [↪ https://doi.org/10.7202/018415ar](https://doi.org/10.7202/018415ar)


5 [↪ http://baladeenpaysbasque.centerblog.net/15273-le-clip-izaro-avant-le-film-nora-de-lara-izagirre-](http://baladeenpaysbasque.centerblog.net/15273-le-clip-izaro-avant-le-film-nora-de-lara-izagirre-)

6 Filma ikusteko esteka: [↪ www.youtube.com/watch?v=tuTwxb5e85A](http://www.youtube.com/watch?v=tuTwxb5e85A)



# Sekuentzia baten analisisia

## Paddle saioa



Joseba surf monitorearekin topo egin ondoren, paddle arialdi batean hasten da Nora. Filmaren lehen herenaren bukaeran gertatzen da sekuentzia hau.

Filmaren lehen herenak bereziki Noraren aitzinamendu malestrak erakusten ditu: huts egiten duen laneko elkarrikeria, aitzinatzen ez den autoa, ibilaldi neketsua, aitonaren heriotzagatik sentitzen duen tristura... Norak paddle taula batean duen lehen esperientzia ere bide oker beretik doa.

Noraren existentziatzeko lehen galdekatzekak ikusirik, saio-kera horiek, haren momentuko trakeskeria azpimarratzeaz gainera, adiera metaforikoa dutela erran daiteke: Nora itzulika dabil, gauzak ez doaz ongi eta bizian aitzinatzeak zailtasunak ditu.

Gainera, paddle saioa beste traba bat gehiago da pertsonaiaren ibilbidean. Oztupo horrek behartuko du pixka bat libratzera eta bere burua hobeki ezagutzera. Horretan datza sekuentziaren interesa.

Segidan garatuko ditugun hiru zati ditu sekuentziak. Lehenik Nora nekez aitzinatzen da paddlean, gero urera erortzen da eta beste oreka bat lortzen du, eta azkenean arialdiaz zinez baliatzen da.

### ● Lehen entsegu dorpea [38:16-tik 39:40-ra]

Plano ertain kasik geldian agertzen da Nora bere paddle taularen gainean. Plano-eskala honen bidez, Nora taularen gainean zutik erakutsi daiteke, eta bere gorputzaren gogortasuna nabarmendu daiteke. Gainera, kameraren koadroa doi-doi itzultzen da protagonista ur gainean segitzeko. Koadroaren zurruntasunak azpimarratzen du Noraren aitzinamenduaren moteltasuna, eta korrontearen indarraren sentsazio fisikoa transmititzen digu protagonista pala urean sartzen duelarik aitzinatu ahal izateko. Iduri du Nora kontrakorrontean ari dela arraunean. Irudipena indartzen da jende multzo bat agertzen delarik


kamera finkoaren eremuan. Ikusizko eta soinu-zko kontrastea harrigarria da. Paddleetan zutik, jende horiek zitzu bizian doaz; eta haren ondotik pasatzean, Nora desorekatzen dute. Azkenean, gure protagonista uretara erortzen da. Koadroa geldirik egoten da, Norari begira, beste lau pertsonen eremua gelditu gabe eta urean trebeki lerratuz zeharkatzen duten bitartean. Uretako arraun kolpeen maiztasuna handitzen da, soinu-espazioa betetzen du, eta erritmo dinamiko sortzen du.

Halere, taldearen hurbiltzeak tentsioa areagotzen du eta Noraren erorketa seinatzen du. Bikotea eta bi seme-alabak zenbat eta gehiago hurbildu, hainbat eta gehiago hertsitzen da kameraren koadroa, ardatzean egin raccord segida bati esker. Lehen plano eta angelu pikatuaren bidez, kamerak Noraren aurpegia mugatzen du. Ahalmenik gabe agertzen da orduan, urean igerika. Azkenean, taula harrapatzen du.

Gero, lehen zati honetako azken planoaren koadroa zabaltzen da eta taldea erakusten du. Jende multzoa koadroaren gibelaldera urruntzen da, lerro zehar dinamiko bat jarraituz. Nora, lehen planoan, bere taularen gainera itzultzera entseiatzen da. Beste lau pertsonen aldean objektu perpendikularra da hura, irudiak berriz ere kontrakorronteko pertsonaia bat seinatatu nahi balu bezala.

Irudipena are indartsuagoa da Norak azkenean taulara igotzea kausitzen duelarik. Hura etzanik ageri da, eta koadroaren gibelaldean mugitzen den taldea zutik da, bakoitza bere paddlean. Eredu sakontasun handiko plano ertain horri esker, irudia gidatzen duten bi lerroak ikus daitezke: taldearen bizitasuna eta dinamismoa azpimarratzen dituen lerro bertikala eta Noraren gorputza eta paddle taula marrazten dituen lerro horizontala – geldialdia eta sinbolikoki heriotza ere markatzen dituen horizontaltasuna –.

Gainera, paddlean zutitzera entseiatzen delarik, Nora



bigarren aldiz erortzen da, arraunak zutik egoten lagundurik ere. Memento horretatik goiti aldatzen da protagonistaren norabidea.

### ● Paddle arialdi bukaera arinagoa [39:41-etik 40:19-ra]

Taldea urrundu-eta, isiltasuna nagusitzen da, arraunaren plisti-plasten artean. Nora bakarrik da, berriz. Bigarren zati hau, lehen planoan ura erakutsiz hasten da. Nora pixkanaka agertzen da koadroaren goiko ezkerreko izkinan, burua lehenik eta bizkarrez, ur gainean, igerika ari. Ez da taula ikusten. Norak paddlea eta arrauna utzi ditu.

Pertsonaia lehen planoan eta angelu pikatuan erakustekak, aldi honetan, ez du Noraren ezintasuna adierazten. Aitzitik, Nora arin aitzinatzen da urean. Lasaitua iduri du; bularka igeri egiteak eragiten duen uraren soinuarekin nahasten den musika estradiegetikoaren ezintasunak areagotzen du Noraren lasaitzea.

Ondotik, beste lehen plano eta angelu pikatu batek erakusten du Nora zirurikan dabilela. Gero, planoen koadroa zabaltzen da emazte gaztearengandik, urean egiten dituen mugimendu libreak ikusteko: zut-zuta murgiltzen da, eta ondotik ur gainera agertzen da. Azken itzulipurdi bat egiten du ere, zangoz gora murgilduz. Kameraren koadroa arinago bilakatzen da eta Noraren koreografia libreari jarraitzen dio. Ez da gehiago norabide-zentzurik. Sekuentziaren lehen zatiko planoen lerroen zurruntasuna desagertu da. Norak irriñoa egiten du, eta, azkenean, emazte gaztea egunaz baliatzen da.

Bestalde, urean murgiltzen eta ur gainera agertzen den Noraren irudiak bataioaren zentzu kasik erlisione-zko hartzen du. Nora indarberritzen da, eta iduri du berpizten dela. Azkenik, dimentsio sakratutik haratago, ura biziaren sinboloa ere bada.

### ● Indarberriturik [40:19-tik 40:36-ra]

Sekuentziaren azken istanteetan, musika isiltzen da. Koadroa berriz hertsitzen da Noraren aurpegian; bere begitar-tea serio-sago bilakatzen da. Begirada raccord-aren bidez, hurrengo planoan plano zabalago bat ikusten da: paddle taula arras urrundu da, noraezean dabil eta kameraren eremutik kanpo dago.


Nora berriz ohartzen da erantzukizunak dituela. Kamera finkoaren eremutik ateratzen da, taula harrapatu eta gibelera ekartzeko. Urean itzulika aritu ondoren, azkenean, lortzen du taula aitzinaraztea eta bere erritmoa ematea, nahiz oraindik doikuntzak egin behar dituen.

Nora libratzen da, espero diren keinuak erreproduzitzeari utzi eta bere gorputzari entzutea onartzen duelarik. Ikas-kuntza ez da beti mimetismotik pasatzen. Batek bere burua berriz asma dezake: Norak paddle saioa desbideratu eta nahi bezala erabili duelarik, orduan du atzeman bere adierazpide libreagoa.

Gainera, sekuentziaren lehen eta bigarren zatien artean, iduri du film zuzendariak zinemaren historiako hastapeneko film plano bereizgarriarekin jotzen duela: plano zurrun finkoa, non eremuaren kanpoko ez baita existitzen.

Gero, eremuaren barnekoa eta kanpoko onartzen dituen plano arinago bat erabiltzen du, Noraren gogo eta gorputzaren urraskako libratzea hobeki kontatzeko. Hain zuzen, sekuentziaren bukaeran, Norak eremuaren kanpora ihes egin dezake taularen xerka joateko; sekuentziaren hastapenean, aldiz, koadro barnean preso bezala dago. Norak beste nahigabe batzuk gainditu beharko ditu bere bidea atzeman aitzin. Askatasun osorako bidea luzea da oraindik. Gainera, Norarentzat trabaz betea den bidearen itxura hartzen du filmak. Eragozpen guzien artean, mutiko lagun ohiarekin topo egitea izanen da filmaren klimaxa.





## Parez-pare “Aitita” Nicolás eta “Amama” Juliana

*Amama* (Asier Altuna, 2015) filma eta gero, arbasoekilako filiazioaren gaia jorratzen duen azken urteotako bigarren euskal luzemetraia da *Nora*. Lehenean nahiz bigarren, karismaz eta autoritate naturalaz beteriko aitona edo amona erdiguneko pertsonaia da. *Amama* filman, Altunak familia baten gatazka kontatzen du, hain zuzen etxaldearen segida hartu behar zuen Gaizka semeak atzerrira joatea erabakitzen duelarik pizten den ezinegona. Amama Juliana amona indartsua da, isilik eta mutu badago ere, haurrideen arteko tirabiretan pentsaera berezia asumitzen duena. Halaber *Nora* filman, Nicolás Aititak ahaideen arteko aharrak ezitzen lortzen du, heriotzak eraman ondoren ere. Julianari esker, Amaia alabatxi mutiriak bere lekua atzematen du arbasoen baserrian, bai eta sorkuntza artistikorako bere hatsa ere. Bere aldetik, Nicolás itsasargia bezalakoa da Norarentzat, eta horri esker, emazte gazteak bere buruaren entzuten ikasten du bidaiaaren bakardadean, bidenabar ilustraziorako bere zaletasunari ateak idekiz.

Familiako hirukote batek gidatzen ditu bi filmak ere. Amaman Juliana, Tomas semea eta honen alaba Amaia daude. Isabel ama ere agertzen da, aita-alaben arteko harremanaz bere ikuspuntua ematen duela. Amaginarrebarekin batera, Isabel saiatzen da Tomasen eta Amaia-aren arteko etsaigoa jabaltzen. *Nora* filman, Nicolás aitatxi argentinarrek aski harreman hurbila du bere seme Javirekin. Aldiz, honen alaba Nora gatazka idekian dago Loli amarekin. Gizonezko pertsonaiak dira ama-alaben arteko adiezintasuna lasaitzen saiatzen direnak.

Zenbait parekaketa gehiago badira izan, Asier Altunaren eta Lara Izagirreren luzemetraien artean. Honela, Amaiak amatxi hartzen du argazkitan, Norak aitatxi margotzen duelarik. Bietan, bi emazte gazteek asaben gaia artistikoki sublimatzen dute eta emaitzaren argitaratzea lortzen dute. Bi filmen osagai formalei erreparatzen badiegu berriz, Amaia hori koloreko Volkswagen furgoneta batean ibiltzen da joan-jinka herriaren eta baserriaren artean. Parean, Nora bidez-bide dabil zeruaren koloreko urdin argia duen Dyane 6 auto batean. Bestalde, soinu-bandak kontuan hartzen baditugu, bai *Amama* eta bai *Nora* filmek euskal kantari gazteei dei egin diete eta zuzenean joarazi dituzte

manera intradiegetikoan. Alde batetik, Mursego taldeko Maite Arroitauregi dugu *Amama* luzemetraian eta bestetik, Izaro kantaria *Nora* filman.

Azkenik, hizkuntzaren eta espazioaren gaia modu ezberdinean jorratzen dute bi filmek. *Amamaren* kasuan, haurrideak oro elebakarrak dira, ez dute euskaraz baizik komunikatzen. Adin guztietako biztanleak euskaraz ari diren guneak dira etxea, auzoa edota herri-erdigunea. Parean, *Nora* luzemetrai eleanitza da eta espazio ezberdinak zeharkatzen ditu. Nora aitatzirekin erdaraz ari da eta haren argentindar prosodia ikasten ahalegintzen da. Noraren aitak ez dakienez, amarekin baizik ez da euskaraz mintzatzen, eta familiako ingurutik kanpoko eskolako lagunekin edota ezagutzen dituen adiskide berrieekin. *Nora* filman frantsesa eta ingelesa ere entzuten dira. Hala-hala, espazio anitzak ageri dira luzemetraian: apartamentua, hiria, Kantauriko kostaldea eta Norak bidaian zehar trabeskatzen dituen leku guztiak. Bitartean, eremu gehiagoren aipua egiten da, aitatziren sorterria Argentina edota Noraren aitama bidaizaleek bisitatzen dituzten guneak ere. Antolaketa ezberdin hauek erantzun kultural bereziak sortzen dituzte film bakoitzean. Ohar gatzazkion zehazkiago, heriotzaren aitzinean agertzen duten jarrerari. Amama Julianaren heriotze-beila familian egiten da, Tomasek eta sortetxera itzultako Gaizkak – Julianaren semeak eta sematxiak, hots – eskuz sortu duten zurezko hil-kutxa batean. Aitzitik, Nicolás erietxe publikoan beilatzen dute eta haren gorputza erretzen. Nora alabatxiak du bere gain hartzen aitatxi zenaren errautsak amatxiren hilobira pausatzen joateko.

Bi kasuetan asaba zaharraren memoriarekiko fidelitasuna baitezpadakoa bada ere, *Amama* filmak hilaren gorputza lurrean iltzatzen du (*Amama* Juliana zenaren arima berak berariaz idekirik utzi zuen leihotik ihes egin ahal izan du) eta Norak aldiz, itsaso zabalari eta Atlantikoaz haraindiari so dagoen hilerria proposatzen du.

Bukatzeko azpimarra dezagun bi filmak lotzen dituen berezitasun bat. Hain zuzen ere, *Amama* Julianak nola Aitita Nicolásék ere, zeinek bere maneran, sortzen ikusi zituen lurrean hiltzera itzuli nahi izan zuten.

## ZINEMAREN HIZTEGITXOA



Hiztegi ttipiak bildumatik hartua.  
Hendaia, Biarritz, Baionako hiriak – EHE – EEP  
Marrazkiak: Laure Gomez





# Zinemaren hiztegitxo

## Petit lexique du cinéma



### ● Zinema sailak

#### Catégories cinématographiques

Egokitapena: Adaptation  
Animazioa: Animation  
Biografia: Biographie  
Dokumentala: Documentaire  
Fikzioa: Fiction  
Filma: Film  
Sortzaile filma: Film d'auteur  
Ordenagailuzko irudia: Image de synthèse  
Bertsio berria: Remake

### ● Film mota

#### Genre de films

Kronika soziala : Chronique sociale  
Komedia : Comédie  
Komedia erromantikoa: Comédie romantique  
Drama: Drame  
Fantastikoa: Fantastique  
Beldurrezko filma: Film d'horreur  
Historia filma: Film historique  
Polizia-filma: Film policier  
Zientzia fikzioa: Science-fiction

### ● Iraupena

#### Durée

Film laburra: Court métrage  
Film luzea: Long métrage  
Film ertaina: Moyen métrage



### ● Lanbideak

#### Métiers

Kameraria: Cameraman  
Banatzailea: Distributeur :  
Zinema-jabe / Zinema-gela zuzendaria: Exploitant  
Ekoizlea: Producteur  
Film egilea / Zinegilea: Réalisateur

### ● Filmaren inguruan

#### Autour du film

Aitzin estreinaldia: Avant-première  
Trailer / Aurrerakina: Bande annonce  
Zinemako sailkapena: Box office  
Zentsura: Censure  
Zinemazalea: Cinéphile  
Klixea: Cliché  
Kritika: Critique  
Atzera begirakoa: Rétrospective  
Kitzikiragarkia: Teaser  
Estreinaldia: Première



### ● Soinua

#### Le son

Jatorrizko soinu-banda: Bande originale  
Soinu-banda: Bande-son  
Soinu efektuak: Bruitage  
Zinema mutua: Cinéma muet  
Musikagilea: Compositeur  
Elkarrizketak: Dialogues  
Bikoizketa: Doublage  
Soinu-teknikaria: Ingénieur du son  
Azpтитuluak: Sous-titres  
Jatorrizko bertsioa: Version originale  
Off-eko boza: Voix-off

### ● Zinema filmatu

#### Filmer le cinéma

Hartualdi angelua: Angle de prise de vue  
Irudi gelditzea: Arrêt sur image  
Enkoadratzea: Cadrage  
Kontraeremua: Contrechamp  
Kontrapikatua: Contre-plongée  
Efektu bereziak: Effets spéciaux  
Itzaltzea: Fondu  
Lehen plano handia: Gros plan  
Eremuz kanpoa: Hors champ  
Panoramikoa: Panoramique  
Plano zabala: Plan large  
Sekuentzia plana: Plan séquence  
Pikatu / Goitik beherako hartzea: Plongée  
Kamera geldoa: Ralenti  
Zooma: Zoom

### ● Urratsak

#### Les étapes

Muntaketa: Montage  
Postprodukzioa: Postproduction  
Filmaketak: Prises de vues  
Promozioa: Promotion  
Leku bilaketa: Repérages  
Gidoia: Scénario  
Script / Film idazkia: Script  
Storyboard / Irudi-gidoia: Storyboard  
Sinopsia: Synopsis  
Filmatzea: Tournage



### ● Aktoreak

#### Distribution

Agentea: Agent  
Karrera: Carrière  
Arrisku-eszena: Cascade  
Aktoreak: Casting  
Hegalak: Couloisses  
Ordezkoa: Doublure  
Figurantea: Figurant  
Heroia: Héros  
Aldagelak: Loges  
Pertsonaia: Personnage  
Filmaketa platoa: Plateau  
Kontrol-gela: Régie  
Rol nagusi / Paper nagusia: Rôle principal  
Izarra: Star



### ● Zineman

#### Au cinéma

Arte eta entsegua: Art et essai  
Pantaila: Ecran  
Azken eszena: Final  
Kredituak: Générique  
Sarrera: Introduction  
Gela anitzeko zinema: Multiplexe  
Emanaldia: Projection  
Zinema gela: Salle de cinéma  
Eszena: Scène  
Ikuslea: Spectateur  
Txartela: Ticket  
Krispeta-artoa: Popcorn

